

ESKU-HUSKA. Biharko finalerdia «gogorra eta parekatua» izango da, Barriolaren ustetan



MIKEL SAIZ

Abel Barriola Leitzako pilotalekua atzean duela ageri da argazkian.

Barriola: «Lau t'erdiko txapelketako finalera iristea sekulakoa litzateke»

Leitzako atzelariak Oscar Lasaren aurka jokatu du, bihar, Lau t'erdiko Txapelketako finalerdia, Gasteizko Ogeta pilotalekuan

Jon Gonzalo | **DONOSTIA**

2001. urtea ez du erraz ahanzi-ko Abel Barriolak. Buruz Buruko Txapelketan finalerdietaraino iritsi zen, eta Lau t'erdiko Txapelketan ere bikain ari da. Pablo Berasaluze, Patxi Ruiz, Inaxio Errandonea eta Martin Alustiza kanporatu ditu, eta Oscar Lasaren aurka jokatu du, bihar, finalerdia. Inoiz baino hobeto ari da jokatzeko, baina biharko partiduan ez du bere burua faborito ikusten. «Azkenaldian, ondo jokatzeko ari naiz, baina horrek ez du esan nahi Lasaren aurkakoa faborito naizenik».

Argi dago biharko partidua irabazi nahi duenak lan handia egin beharko duela. Pilotakada askotxo jo beharko ditu. Barriolak ere gauza bera uste du: «Biak atzelariak gara, eta pilotetan ondo moldatzen gara. Hori guztia kontuan hartuta, biharko partiduan tanto luzeak

ESANAK

ABEL BARRIOLA
(Pilotaria)

«Azkenaldian, ondo jokatzeko ari naiz, baina horrek ez du esan nahi Lasaren aurkakoa faborito naizenik»

«Biharko partiduen gako pilotetan egongo da: akats gutxien egiten duenak irabaziko du»

«Gasteizko Ogeta pilotalekua nire gustukoa da, eta alde horretatik ez dago aitzakiarik»

«Aurten egindakoarekin oso pozik nago; Buruz Buruko Txapelketan eta Lau t'erdian maila ona eman dut»

ikustea ez da harrizkoa izango, eta partiduen gako tanto horietan egongo da. Piloteoan akats gutxien egiten duenak irabaziko du partidua».

Pilota aukeraketa asteazkenean egin zuten, eta bereizitako pilotekin gustura gelditu zen Leitzako atzelaria. «Lasaren pilotan baxuagoak dira, eta nireak arinagoak. Norberak bere gustuko materiala aukeratu du, norberari komeni zaiona. Ni, behintzat, gustura nago aukeratutakoarekin». Halaber, pilotalekuarekin ere aitzakiarik ez. «Gasteizko Ogeta gustuko pilotalekua da niretzat. Hala ere, badakit arriskutsua izan daitekeela, zorua oso bizia delako, eta pilota ere asko ibiltzen delako».

2001. urteko ibilbidea biribiltzeko, Lau t'erdiko txapelketan finalera iristea gauza handia litzateke Abel Barriolarentzat. «Aurten egindakoarekin oso pozik nago, eta Lau t'erdian finalera iristea sekulakoa litzateke. Eugi edo Beloki izango nuke aurkari finalean, eta partidua hori jokatzeko sari bat bezalako litzateke niretzat. Nolanahi ere, ez dut oraindik gauza horietan pentsatzen. Badakida-

lako Oscar Lasaren aurkako partidua irabaztea oso zaila izango dela».

Zailtasun horri aurre egiteko, ordea, ez zaio laguntzarik falta-ko Barriolari. Partidu guztietan bezala, Leitzatik joandako jende mordo bat bilduko da Gasteizen. «Orain arte jokaturako partiduetan herriko jende ugari etorri da ni ikustera, eta asko lagundu didate. Gasteizera ere asko dira joatekoak, eta partidua ona ikus dezatela espero dut. Izan ere, bai Oscarrek eta bai nik jende horren ahalegina eskertzeko egin dezakegun gauzarik onena pilota partidua on bat jokatzeko dela uste dut». Hala izan dadila.

Etxaniz eta Elkorok nagusitu ziren atzo Eibarko Astelenan

Eibarko Astelenan ikusgarria izan zen atzo Aspeko estelarra. Etxanizek eta Elkorok 22-20 gaititu zituzten Capellan eta Zezeaga, eta goi mailako tanto bat baino gehiago ikusi ahal izan zen. Guztira, 796 pilotakada jo zituzten, eta 77 minutuko iraupena izan zuen partidua. Fuenmayorren, berriz, Martin Alustiza eta Otxandorenak 22-18 hartu zituzten mendean Esain eta Errasti. Otxandorenak nagusi izan zen pilotetan, eta Alustizak tanto ikusgarriak egin zituen aurreko koadroetan.

TXOKOAN

PALA

Casadok 35-32 gaititu zuen atzo Urkijo, eta 2. Mailako Txapelketako finalerdia jokatu du

2. Mailako Txapelketako partidua gogorra izan zen atzo Bilboko Deportibon. Hasiera-hasieratik berdintasuna izan zen nagusi, baina, azkenean, Casadok 35-32 hartu zuen mendean Urkijo. Txapelketako finalerdian Garmaren aurka ariko da atzoko irabazlea. Halaber, jaialdiko bigarren partidua ere oso orekatua izan zen, eta, azkenean, Unda I.a eta Beldarrainek 45-41 gaititu zituzten Urkia eta Garrido.

ERREMONTEA

Altuna II.ak eta Iriartek 40-32 hartu zituzten mendean Altuna I.a eta Aizpuru Euskalen

Altuna II.a eta Iriartek 40-32 irabazi zieten Altuna I.a eta Aizpururi atzoko Euskaleko estelarrean. Partiduak ez zuen oreka handirik izan, eta irabazleek partidua on egin zuten. Galarretan, berriz, Gazte Mailako finalerdia jokatu zen, eta partidua horretan Agirresarobe eta Aizpuru II.a 40-36 nagusitu ziren Zalakain eta Zestau III.aren aurka. Estelarrean, Ezkurra eta Etxeberria II.ak 40-38 gaititu zituzten Zeberio II.a eta Eizagirre.

JAIALDIAK

ATZOKO EMAITZAK
EIBAR. 17:00.

Galarza V.a-Auxkin 22/ Berraondo-Apeztegia 14
Etxaniz-Elkoro 22/ Capellan-Zezeaga 20

FUENMAYOR. 17:00.

Arbizu-Errandonea 22/ Nagore-Pinedo 17
Alustiza-Otxandorena 22/ Esain-Errasti 18

EUSKAL. 16:00.

Ziganda-Reklusa 30 / Larrea-Barrenetxea II. 35. Altuna I.a-Aizpuru 32 / Altuna II.a-Iriarte 40. Urreta I.a-Auzmendi 40 / Matxin-Txikuri 31

GALARRETA. 16:00.

Zeberio III.a-Gaztelu 30/ Matxin III.a-Lander 26

Gazteen Torneoak finalerdia:

Agirresarobe-Aizpuru II.a 40/ Zalakain-Zestau III.a. 36. Ezkurra-Etxeberria III.a 40 / Zeberio II.a-Eizagirre 38

DEPORTIVO. 17:00.

2. Mailako Txapelketa:

Urkijo 32/ Casado 35
Unda I.a-Beldarrain.45 / Urkia-Garrido 41

GAURKO PARTIDUAK

DURANGO. 22:00.

Leiza-Albizuri / Beloki II.a-Begino Unanue-Pascual / Olaizola I.a-Zearra

AZPEITIA. 22:30.

Agirresarobe-Urko / Bereziartua-Badiola Ezkurra Eizagirre / Zeberio II.a-Altuna I.a-Etxabe